

Bihar, Esloveniako dantzak

Euskal Herria plazan
Gau Giro barruan ▶ 3



Alegiako eliza erabat berritzeko 349.000 euro behar izan dira

LANAK ▶ Sakristia, zorua, aldarea eta tximistorratza berritu dituzte; sei hilabete iraun dute lanek ▶ 5



Alegiako eliza berrituaren ikuspegi orokorra, atzo. OLAIA ESKITXABEL



INIGO ASENSIO

XABIER ARTOLA ▶ PISTA TXIRRINDULARIA

«Munduko Txapelketan egoteko borrokatuko dut»

Europako Pista Txapelketan laugarren izan berri da ▶ 2



LEITZA-ARESO ▶

Igeriketak ikastaroak ari dira egiten

Leitzakoak, herrian;
Aresokoak, Tolosan ▶ 7

ANOETA ▶

Hurtzaindegiaren lanak hasita, irailean martxan hasteko

San Juan kaleko behekalde batean dago kokatuta, 0-2 urtekoentzat ▶ 4



JOXEMI SAIZAR

TXIRRINDULARITZA ▶

Josu Agirre
garaile
Elgetako
lasterketan

Agirreren erritmoari ezin izan zion inork heldu Elgetako azken igoeran

I. ASENSIO

Serbitzu taldeko Josu Agirre tolosarrak irabazi zuen igandearen jokatu zen Elgetako mendi lasterketa. Bertan Agirrek lortutako garaipenarekin badira lau aurten, Alegia eta Sorluzeko 3. postuez gain. Lasterketaren nondik norakoak ezagutzeko, Josu berarekin mintzatu da HITZA.

Zenbait saiakaren ondoren, lasterketaren behin-behineko ihesaldia Elgetatik Elorriorakoan, osatu zen. Bertan Beñat Albizuri, Ruben Perez, Gustavo Toledo, Javier Ruiz de Larrinaga, Julien Fernandez eta Josu Agirre bera zihoazen. Elgetarako igoeraren hasieran, Ruben Perezek 25 segundoko aldea zuen taldearekiko, «Julien Fernandez, Albizuri eta neronek, beste taldekideak utzi eta 3,5 kilometro faltan harrapatu genuen Perez. Albizuri eta nik ihes egin genuen ondoren eta kilometro baten faltan eginiko erasoan lortu nuen hau atzera uztea». Albizurik 13 segundo galduko zituen azkenean.

Igandekoarekin, Josu Agirrek Euskaldun Txapelketako lidertza hartu zuen. Orain profesional munduaren deia jasotzea besterik ez zaio falta txirrindulari tolosarrari.

XABIER ARTOLA ▶ PISTAKO TXIRRINDULARIA



I. ASENSIO

«Laugarren postua lortzea
izugarritzko arrakasta da»

Zoritxarreko denboraldi baten ostean, Europako Txapelketako laugarren postuarekin «gustura» dago Xabier Artola tolosarra

IÑIGO ASENSIO

Xabier Artola tolosarra Valentzian jokatu berri den Pista Txirrindularitzako Europako Txapelketatik etorri berria da. Txapelketa honetan laugarren postua lortu du abiadura olimpiko proban, erorketek markaturiko denboraldi bati amaiera bikaina emanaz. Lan Publikoetako Ingenieritza Teknikoa ikasten ari da gazte tolosarra, eta ikasketekin batera eguneror-eguneror 3-4 orduz entrenatzen da. Denboraldia agurtu du Artolak Valentziakoarekin, baina ez du atsedenaldirako ia astirik izango, irailean berriz ere datorren denboraldia prestatzen hasiko baita, Munduko Txapelketan egoteko helburuarekin. Hemen den txirrindularitza kulturaz, bere helbueruez eta lortutakoaz hitz egin zuen HITZAREKIN.

Gazte hasi zinen kirolean, ezta?

Bai, 7 edo 8 urterekin hasi nintzen igeriketan. Gaztetxotan Euskadiko txapeldun izan nintzen eta Espainiako Txapelketan ere parte hartu nuen. Txapelketa honetan 7. postua lortzea iritsi nintzen, baina azkenean utzi egin nuen.

Eta handik, txirrindularitza-ra?

Bai. Egia esan, nahiko berandu ekin nion. 15 urte-edo nituela hasi nintzen errepidean. Aurre-denboraldian pista egiten nuen eta urtean zehar batez ere errepidean aritzen nintzen. Afizionatueta pasatzean, pistatan bakarrik aritzea erabaki nuen; honekin bigarren denboraldia daramat.

Zerk bultzatzen erabaki hori hartzea?

Hemen, txirrindularitza kultura zehatza dago. Lasterketa guztietan mendateak daude no-nahi. Eskalatzaile ona ez bazara jai daukazu. Igor Astarloarena adibide garbia da, Italiara jo

behar izan zuen aukera bila eta egun Munduko Txapelduna dugu.

Zuk berriz, pistara?

Bai, nire baldintza fisikoak kon-tuan izanik, ondo datorkidan txirrindularitza mota da, oso gustukoa zaidana.

Beno, aurtengo denboraldia har dezagun, zer moduz joan da urtea?

Zortea ez dut lagun izan, azkenean laugarren postu honek, urte guztiko lana saritu du; bazez garaia. Espainiako Kopako lehen proban erori eta klubikula hautsi nuen. Sendatu eta bi hilabetez entrenatu ondoren, apirilean, Mallorcan jokaturako Espainiako Txapelketara joan eta berriz erori nintzen; oraingoan fisura egin nuen. Berriz ere martxan jartzerako Valentzian egin beharreko kontzentrazioa zetorren eta nik dagoeneko morala lur jota nuen. Aurtengo zutetokan ibili nintzen, batere gogorik gabe nen-

PISTA

«Txirrindularitza kultura zehatza dago hemen; eskalatzaile ona ez bazara jai daukazu»

DENBORALDIA

«Zortea ez dut lagun izan aurten, lesioek jota nebilen, baina azkenean, honek, guztia saritu du»

HELBURUAK

«Lehen helburua selekzioan sartzea da noski; Mundukoetan egoteagatik borrokatu beharko dut ondoren»

goen, baina kontzentrazioa joateko konbenzitu ninduten. Europako Txapelketan parte hartzeko ideiarik ez nuen, baina sasoiak uste baino errazago hartu nuen eta abiadura olimpikoan parte hartuko nuela esan zidaten. Hilaren 11n izan zen hori, eta 17an lasterketa zen. Dena ezustekoa izan da, lortutako 4. postua barne.

Egia esan, emaitza bikaina da.

Bai, gure helburua lehen zortzien artean egotea zen, horrek hurrengo urterako beka ziurtatzen baitzigun. Laugarren postua lortzea izugarritzko arrakasta da, are gehiago pista kultura izugarria duten selekzioen aurka lehiatzean.

Abiadura Olimpiko proban hiru txirrindularik osatzen zenuen taldea, ezta?

Bai, Ruben Donet eta Adrian Sanchez valentziarrek osatzen zuten taldea. Nik lehengo hiru itzuliutan beraiek biak ahalik eta abiadura azkarrarean utzi behar nituen. Gerora beraiek erritmoa mantendu behar zuten. Azkarrena lehen itzulen da, lehen metroak eta sinkronizazioa oso garrantzitsuak dira, ehunenean erabaki dezakete proba.

Eta orain?

Orain atsedenerako garaia heldu da. Abuztuaren lasai ibiliko naiz eta ondoren, irailek aldera datorren denboraldirako prestatzen hasiko naiz. Bizikleta hartu baino lehen, igeriketa eta bestelakoei ekingo diet.

Hurrengo urterako, zein dira helburuak?

Lehen helburua selekzioan sartzea da noski; Munduko Txirrindularitza Txapelketan egoteagatik borrokatu beharko dut ondoren.

TOLOSA LANTZEN S.A.

IRAGARKIA

2004ko uztailaren 7an onartu zen ondorengo klausula administrati-bon plegua: Tolosako Porikirodegia Usabalen futbol-zelaia egiteko exekuzio proiektua.

- 1.- Helburua: Tolosako Porikirodegia Usabalen futbol-zelaia egiteko.
- 2.- Lizitazioaren zenbatekoa: 1.039.580,83 € (BEZA barne).
- 3.- Lanak egiteko epea: 6 hilabete.
- 4.- Espedienteak ikusteko: Kopitec (Samaniego kalea 1), telefonoa 943 65 40 28.
- 5.- Behin behineko fidantza: 20.800,00 €.
- 6.- Behin betiko fidantza: 41.600,00 €.
- 7.- Eskaintza egiteko epea eta tokia: Tolosa Lantzen S.A.n, helbidea Plaza Zarra, 6 B, iragarki hau Gipuzkoako Adilzari Ofizialean argitaratzen den datoren biharamunetik zenbatuta 13 eguneko epean, eguerdiko ordubata (13:00) arte.

Tolosa 2004ko uztailaren 8an
TOLOSA LANTZEN S.A.ko Lehendakaria

JUBILATUAK ▶

Laredora joateko bidaia antolatu du Harizpek

Harizpe elkarteak Laredora bidaia antolatu du abuztuaren 27rako. San Frantziskotik irten, eta Saltacaballora joango dira lehenik izena ematen dutenak. Laredoko azoka bisitatuko dute ondoren eta Urdiña Txiki txarangarekin kalejira egin ostean Barlovento jatetxean bazkalduko dute. Arratsaldean festa izango dute, bestalde. Izena elkartearen eman daiteke.

PALETA ▶

Tolosa CFren txapelketak gaur jarraituko du

Tolosa CFren Paleta Txapelketak gaur jarraituko du. Herenegun zen jokatzekoa multzo bakoitzeko bigarrenen arteko kanporaketa, baina eguraldi txarra zela-eta gaur arte atzeratu dituzte. Oraingoz, Zabaleta-Urdanpilleta, Otermin-Goitia eta Apeztegia-Maiza bikoteak dira sailkatuta. Bihar izango dira finalerdia eta etzi jokatu dute finala Berazubín.

ENPLEGUA ▶

Galtzaundik deia egin die kultur dinamizatzaileei

Galtzaundi Euskara Taldeak kultur dinamizatzaile lanpostua eskaintzen du; lanaldi erdiko behin-behineko kontratua egingo zaio langileari, eta lanpostu hori betetzeko ezinbestekoa izango da Tolosaldekoa izatea, kultur arloko esperientzia izatea, EGA titulua edo balioak izatea eta gidatzeko baimena edukitzea. Kurrikuluma bidali Nafarroa etorbideko 6 beheara.

MERKEALDIA ▶

Merkealdia iragartzeko kartelak eskura

Merkealdia dela-eta Tolosako Udalak jakitera eman du Tolosako dendariak eskura dutela Tolosa Hiri Komertziala kanpainaren barruan egin duten *Merkealdia* kartela. Udaletxeko Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu Departamentuan (3. solairua, 3.3. atea) eskuratu ahal izango dute merkatariek kartel hori, bertara joan eta eskatuz gero.

ERROMESALDIA ▶

Arantzazura joan nahi dutenentzat izen-ematea

Liolako San Inazio eguna dela-eta Arantzazuko santutegira egiten duten erromesaldia egingo dute tolosarrek hilaren 31n. Aita Frantziskotarren komentuan eman daiteke izena bertara autobusez joateko, eta autoz joaten direnek erromesaldien bazkari-rako txartelak eskuratu ahal izango dituzte, era berean. 14,50 euro ordaindu behar dira horretarako.

GAU GIRO ▶

Esloveniako dantza taldearen emanaldia izango da bihar gauez

Urte gutxitan arrakasta handia lortu dute; Tolosara ere xede berarekin datoz: Esloveniako dantza tradizionalak zabaltzea

IRATXE ETXEBESTE

Esloveniako dantza taldearen emanaldia izango da bihar gauean Plaza Berrian. Ljubljana Unibertsitateko ikasleen elkartea sorreratik, 1948az geroztik, ari da eskaintzen saloak nazioartean, eta hastapen-hastapenetik zeregin hori dute elkartea osatzen duten kideek: Esloveniako dantza tradizionala *ekoitzi* eta jendaurrean erakustea. France Marolt (1891-1951) etnomusikologoak, Etnomusikologia Institutuko zuzendariak, sortu zuen elkartea hori, eta hasierako filosofia bere horretan mantendu dute dantzariak. Urte gutxi batzutan arrakasta handia lortu zuten haien dantzak Esloveniako ohiko bost lurraldetan aurkeztuz. Izan ere, taldeak beti aurkeztu izan ditu Esloveniako dantza tradizionalak ohore handiz hala haien herrian nola atzerrian. Sarritan egin dituzte agerraldiak telebistan, eta nazioarteko jaialdi askotan izan dira, publikoaren eskerrona lortuz, beti.

Taldeko ordezkariak adierazi dute Esloveniako independentzia lortu baino lehen Yugoslaviako lurralde askotako dantzak eskaintzen zituztela, baina «gertakari politiko hura eman zenetik gure lana Esloveniako dantza eta koreografiak aztertzea, ikasi eta zabaltzea zuzendu dugu». Esloveniako es-

kualde ezberdinetako dantzak dira dantzariak gaur eskaintzen dituztenak, eta horretarako dokumentazio lan handia egin behar izan dutela diote, «berreskuratu» egin behar izan dituztelako ia galtzearen dantza pauso eta koreografia asko eta asko.

«Dantzari gazteenak asko zaintzen ditugu, eta taldearen eskarmentu handien dutenak arduratzen dira horretaz», esan dute Esloveniako dantza taldekoek. Argi dute, izan ere, haiek direla Esloveniako dantza tradizionala etorkizunean indartuko dutenak. «Esperientzia handiko dantzariak eta entrenatzaileak ditugu».

Mundu osoan irudikatu dute azken urteetan haien lana. «Urtetan esperientzia handia hartu dugu atzerrian: Europan, Amerikan, Asian eta Ozeanian izan gara honezkero, eta horrek asko aberasten du gure dantza». Besteak beste, Austria, Italia, Frantzia, Alemania, Belgika, Herbehereak, Txekia, Eslovakia, Rumania, Turkia, Kanada, Israel, Grezia, Australia, Puerto Rico, Peru eta Japoniako jaialdietan izan dira Esloveniako dantzariak; mundu mailako lehiaketa ezberdinetan parte hartutakoak dira.

Orain bi urtetik zuzeneko musikarekin osatzen dute dantzariak haien jarduna. Folk era-ko piezak jotzen dituzte musi-

kariak dantzariak dantzatu dituzten, eta abeslarietako batzuk dantzari ere badira izan.

Esloveniako dantza taldea nazioarte mailako Folklore folklorea jaialdiko antolatzaile eta sustatzaile ere bada, eta izen handia ematen dio horrek dantza taldeari.

Bizkaiko Elai-Alai dantza taldeak urtero antolatzen duen Portugaleteko Folklore Jaialdian parte hartzekoak dira Esloveniako dantzariak. Bide batez, Tolosara ekarri nahi izan dituzte Udaleko Kultur Batzordekoek, «aukera horri alde egiten ezin zitzaionako utzi»; horregatik eskainiko dute emanaldia gaur gauean Gau Giro programaren baitan. Dantzaren beste aurpegi bat ikusteko aukera emango dute, hortaz.

FITXA ▶

Gaia. Dantza: Esloveniako dantza taldea.

Eguna. Bihar.

Ordua. 22:30.

Lekua. Euskal Herria plaza.



Prekmurje inguruko dantzak eskainiko dituzte, besteak beste. HITZA



Jilija ingurukoak ere ez dira faltako gaur gaueko emanaldian. HITZA

KEY-LAN
Sarraigintza
Nafarroa etorb, 13 behe - TOLOSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Faxa: 943 65 03 13

MENDI-ALDE
Eguneroko menuak eta karta **Jatetxea**
Bataioak, Jaunartzeak,...
San Esteban auzoa, 39 • ☎ 943 65 17 99 • 20400 **TOLOSA**

ZIZURKIL ▶

‘Munduko arrautzik handiena’, bihar

Zizurkilgo Udalak prestatutako kultur programazioarekin jarraituz, bihar arratsaldean herriko txikienean ikusizun aparta izango dute herriko plazan. Gorringo antzerki taldeak *Munduko arrautzik handiena* emanaldia eskainiko du. Antzerkia 17:30ean hasiko da eta Joxe Arregi plazan izango da. Uda egun hauetan, oporrak aprobetxatuz, arratsalde pasa plita dute txikienean.

ANOETA ▶

Udal kiroldegi berriko lanak, martxa onean

Eraikuntza grebaren etena- ren ondoren, berriro martxa dira udal kiroldegi berriaren lanak, ikastolaren ondoan. Brues enpresa ari da eraikitzen kiroldegia. Urtarrilean hasi ziren lanak eta hemezortzi hilabeteko epea dute amaitzeko. Datorren urteko jailetarako «bukatu nahiko» luketeela dio Fidel Azpiroz alkateak, baina «zaila» ikusten du eraikuntza grebaren ondorioz.



Udal kiroldegi berriko lanen egoera atzo arratsaldean. J. SAIZAR

VILLABONA ▶

Ez da grafitti eta perkusio ikastarorik izango

Gaur eta bihar, Gazte Informazio Bulegoak antolatuta, egitekoak ziren grafitti eta perkusio ikastarorik ez da izango, «oso jende gutxi eman duelako izena», bulego horretatik jakinarazi dute. Ikastaro hauek herriko gazteentzat zeuden zuzenduta, eta bi arratsaldetan egitekoak ziren Errebote plazan. «Hurrengo baterako» utzi beharko dutela esan dute Gazte Bulegotik.

ANOETA ▶ HEZKUNTZA

0-2 urteko haurtzaindegia- ren lanak hasi dira egiten

Irailaren erdialderako bukatuta egotea espero dute udal arduradunek

JOXEMI SAIZAR

Lehenengo astean hasi ziren haurtzaindegi berriaren lanak. 0-2 urteko haurrentzako gelak San Juan kaleko etxe berrien behealdean egongo dira kokatuta. Irailaren erdialderako lanak bukatuta egotea espero dute udal arduradunek.

Zerbitzu honen bidez, hezkuntza aldetik herrian zegoen behar garrantzitsu bati erantzungo dio Anoetako Udalak eta, Anoetako Herri Ikastolaren eskaintza osatuz, herriko haurrek eta gaztetxoek herrian bertan egin ahal izango dituzte 0 eta 16 urte arteko ikasketa guztiak.

«Udal hauteskundeetan gure taldeak hartutako konpromisoa betetz, martxa dira haurtzaindegia- ren lanak», adierazi dio HITZARI Fidel Azpiroz herriko alkateak. Horretara-



San Juan kaleko behealde hau ari dira haurtzaindegia jartzeko prestatzen egunotan. JOXEMI SAIZAR

rako Udalak behar ziren lokalak eskuratu zituen, San Juan kalean, proiektua prestatu. Eusko Jaurlaritzak eskatutako egokitzapenak egin eta azkenean honen baiezkua jaso zuen.

Haurtzaindegia- ren lanak egitearren, lehiaketa publikoa egin zen. Bi eraikuntza enpresa aurkeztu ziren lehiaketara eta GTE enpresak egindako eskaintza onartu zen.

Enpresa honek bi hilabeteko epea izango du obrak bukatzeko. Lan guztien aurrekontua 137.001 eurokoa da.

Bi gela eta hainbat gune

Anoetako haurtzaindegiak bi gela izango ditu: bata 0-1 urteko haurrentzat, 81 metro karratukoa, eta bestea 1-2 urtekoentzat, 91 metro karratukoa. Bi geletan batera, beste gutxi batzuk ere izango ditu eraikuntzak: sarrera, sukaldea, komunak —haurrentzat eta zaintzailearentzat—, sehaska gunea eta bulegoa, administrazio lanetarako eta gurasoak hartzeko.

«Enpresa eraikitzaileak lanak bukatu ondoren gelak mobiliario aldetik hornituko dira eta irailaren 15ean areak irekitzekotan egon ahal izatea espero dugu», esan du Fidel Azpiroz.

iragarki laburrak ▶



Aia. Baserrira salgai, bi solairukoa, bakoitza 250 m²-koa, gustu handiz berritua, 61.000 m²-ko lursailarekin hornitua. Bi etxebizitza egiteko aukera.

Aizarnazabal. 50.000 m²-ko lursaila salgai.

Anoeta. 2 eta 3 logelako etxebizitza berriak.

Anoeta. Etxe atxikia, garajea aukeran.

Belauntza. 1.060 m²-ko pabilioa, erabat garbia, argitsua eta garabiarrekin.

Donostia. Rodil zeharkalean 42 m²-ko apartamentu berritua, erabat kanpoaldera. 234.400 euro.

Donostia. 104 m²-ko etxebizitza, Colon pasealekuan, bista zoragarriak dituena eta berritua.

Donostia. Garibai kalean 32 m²-ko bulegoa alokairuan, 1. solairuan.

Gaintza (Nafarroa). 3 solairuko baserrira salgai; berrikuntza behar du.

Ibarra. 85 m²-ko etxebizitza.

Berritzeko. Lehenengo pisua. Kanpoaldera.

Ibarra. 85 m²-ko etxebizitza. Egoera onean. Altzariez hornitua. 198.335 euro.

Ibarra. 95 m²-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira.

Ibarra. 75 m²-ko pabilioa salgai, nekazaritzarako egokia den 2.500 m²-ko lursailarekin.

Irura. 52 m²-ko apartamentua lorategiarekin, beheko solairuan kokatuta.

Itsasondo. Eraikuntza berriko etxebizitza; duplexa eta lorategia beheko solairuan.

Legorreta. 1.000 m²-ko pabilioa salgai, 5.000 m² dituen lursailaz hornitua, erosteko edo alokatzeko aukera.

Lizartza. Solairuko 130 m² dituen hiru solairuko baseri berritua.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabilioa, eraikuntza berrikoa.

Segura. 60 eta 90 m²-ko bi etxebizitza salgai.

Tolosa. Errementari kalean berrituta dagoen etxebizitza salgai, 2 gela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekuarekin.

ALEGIA ▶ ERLIJOA

349.000 euro behar izan dira Juan Bataiatzailearen Eliza konpontzeko lanetarako

Sakristia, elizako lurra eta aldarea erabat berritu dituzte; tximistorratza ere aldatu egin dute «aurrekoak bere funtzioa behar bezala egiten ez zuelako»



Elizako atarian kristala jarri dute sarreran argi gehiago egoteko; horretaz gain, jendeak oinak garbitzeko eta lehertzeko eta, horrela, barruan ez irristatzeko zorua jarri dute. O.ESKIXABEL

OLAIA ESKITXABEL

Pasa den astean ireki ziren ofizialki San Juan Bataiatzailearen elizako ateak; sei hilabete inguru iraun dute eliza eraberritzeko lanek. Pasa den ostiralean, uztailearen 16ean, Karmen Eguneke meza nagusian, Eliza bedeinkatu eta aldarea sakratu zuten.

Elizaren itxura erabat aldatu da; askotariko lanak egin dituzte bertan. Zoruan, esaterako, 60 zentimetrora zegoen zabor guztia atera dute; berogailua sartu eta gainean marmola jarri dute.

Oinarritzko lanak eginak

Galtzairuz eta brontzez egindako aldarea eta testuak irakurtzeko atrilak berria dira. Sakristian ere konponketa lan garrantzitsuak burutu dituzte: «Komonak txukundu dira, berogailuaren tresna kendu da eta zoruan hezetasuna pasa-

GASTUAK ▶

Zorua eta leihoak. 118.000 euro.
Argiztatze lanak. 40.000 euro.
Berogailua. 43.000 euro.
Pintaketa lanak. 35.000 euro.
Lanpadarioak eta altzairuzko tresnak. 32.000 euro.
Tximistorratza. 4.000 euro.
Harotza lanak. Ez dakite zenbatekoa oraindik.
Lanak egiteko zerga. 6.000 euro.
Garbiketa lanak. 3.000 euro.
Bestelakoak. Ez dakite zenbatekoa oraindik.
Guztira. 349.000 euro (58.000.000 pezeta inguru).

tzeko isolatze lanak egin dira», dio Joxi Eguzkitzak, herriko apaizak.

Elizaren goiko aldean ikus daitekeen tximistorratza ere aldatu egin dute «aurrekoak bere funtzioa behar bezala betetzen ez zuela-eta».

Argia sartzeko

Argiztatze lanak garrantzitsuak izan dira; Elizaren goikaldean leihatila berriak jarri dituzte «eliza aireatzeko oso egokiak zirela ikusi zelako», azaldu du Eguzkitzak.

Leihoak automatikoki irekitzen dira eta argi naturala sartzea ahalbideratzen dute, gainera. Lan horretaz gain, Erco etxeak argiztatzearen inguruan egindako proiektua jarraituz, lanpadario berriak jarri dituzte zintzilik erdiko eta iskinen nabeetan. Ate nagusia bi helbururekin aldatu dute; sarreran argitasuna sartzeko eta elizara gerturatzen direnek oinak garbitzeko eta lehertzeko aukera izateko.

Lan txikiak ere egin dira; organua, esaterako, garbitu eta afinatu egin dute.

Elizaren konpontzeko oinarritzko lanak burututa, aurrera begira, konponketa gehiago burutuko direla zehaztu daa-paizak. «Besteak beste, santutegiak eraberrituko dira».

Lanen gastuen zenbatekoa 349.000 eurokoa (58.000.000 pezeta inguru) izan da: «Pikkanaka-pikkanaka buelta ematen joango gara», azaldu du Eguzkitza apaizak.



Aldarea galtzairuzkoa eta brontzekoa da orain. O.ESKIXABEL



Lanpadario handiak ikusi daitezke sapaitik zintzilika. O.ESKIXABEL

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



LUDOTEKAK ▶

Udan egonean ez aspertzeko, ludotekara

Berastegin, Elduainen eta Ibarra haur eta gaztetxo ugari erabiltzen dute zerbitzu hori lagunekin ondo pasatzeko



Ibarra. San Bartolomeko plazan dagoen parkean jolasten, Txontxo ludotekako zenbait haur. DANI GIBELALDE



Berastegi. Haur eta gaztetxoak begiraleekin, frontoia atzean dutela. D. GIBELALDE



Elduain. Gogotsu joaten dira haurrak ludotekara begiraleekin batera. D. GIBELALDE

DANI GIBELALDE

Uda garaian, eskolarik gabe, haur eta gaztetxoek ez gogaitzeko aukera izaten dute ludoteketan. Jolasak, ekintzak... ondo pasatzeaz gain, gainerakoekin harremanak sustatzeko eta lagun berriak egiteko baliagarriak dira zerbitzuak. Uztaila osoan zehar, ludoteka zerbitzu berezia dute Berastegin, Elduainen, eta Ibarra. Elkarren arteko aberastasuna jaso eta euskaraz bizi. Horixe da egiten dutena.

Oporretan euskaraz egitasmoaren bidez, Ibarra gazteeni uztaileko opor egunetan elkarrekin bizi, jolastu eta euskaraz aritzeko aukera eman nahi zaie Ibarra Udaletik.

3-12 urte bitarteko 38 haur —gehienez 40entzat dago toki— joaten dira egunero Ibarra Txontxo ludotekara. «Oso ondo pasatzera» joaten dira, eta lau hezitzailearen ardurapean daude.

Udan, ekintzak ludotekatik kanpo egiten dituzte, eguraldi ona egiten duela baliatuz. Eskulanak izaten dira Txontxon egiten dituzte gauza bakarretarikoa, gainerantzean kanpoan igarotzen dute denbora. Hezitzaileek «egunero ekitaldiak planteatzen» dituzte. Joan den ostiralean Gaztelura joan ziren, jolas librea egitera. Besteak beste, Errekaldeko

Txiki Park-era egin zuten bisita beste batean. Belabieta kiroldegira ere joaten dira; hasieran gazteenak, helduenak ondoren, bi txandatan. Bertan, eskalada, *jacuzzi*, aerobik-a, jolasak, hockey-a... kirol ugari egiten dituzte. Asteartetan, igarilekura ere joaten dira. «Harremanak sakondu, eta jendea ezagutzera» joaten direla alpatu dute haurrek. Jolas librean, eskulanak, piraten eguna, adiskidearen eguna, euskal eguna, altxorra bila jolasa herriko kaleetan zehar... Ekitaldi desberdinak egiten dituzte egun bakoitzean. Egun osoko irteera bat ere egingo dute, autobusez.

Berastegin eta Elduainen

Berastegin, 40 haur eta gaztetxo joaten dira egunero 15:30etik 17:30era. Bi taldetan banatzen dira: 3-5 urte artekoak, eta 6 urtetik aurrerakoak. Hiru begirale daude. Eguraldi ona eginez gero, frontoia, parkea... baliatzen dituzte jolasak egiteko. Txarra eginez gero, eskulanetarako erabiltzen dute udaletxeko gela bat.

Elduainen, 15 haur eta bi begirale daude. Asteartetan eta ostegunetan biltzen dira, egun bakoitzean jolas desberdinak egiteko; atzo tizaren jolasa egin zuten, eta bihar altxorraren bila izenekoa egingo dute.

www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

inkestako
galdera berria:

Udan herrietan
antolatzen diren
udaleku irekietara
joaten al zara?



IKASTAROA ▶

Leitza nahiz Aresoko umeak igeriketako ikastaroan ari dira

Batzuk uretako lehendabiziko mugimenduekin hasi dira; besteak, dakitena hobetzeko asmoz murgiltzen dira



Leitzako ikastaroko umeak, atzo goizean, irakasle zein amen esanetara ibili ziren. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Leitzako nahiz Aresoko umeak igeriketa ikastaroan murgilduta dabilta, inoiz esatekotan.

Leitzan, astelehen goizean hasi ziren ikastaroak, bi talde-tan banatuta. Nahi zuen guztia-

rentzat irekiak izanik ere, ume-ek bakarrik eman zuten izena eta dagoeneko ekin diete eskolei.

Igeri ikasteko ikastaroan zazpi haur ari dira, hirutik bost urte bitartekoak denak. «Hemen uretan ibiltzen ikasiko

dute, aurrena babesekin eta piskanaka, konfiantza hartzen duten neurrian, utziz joanen dira. Uretan defendatzen ikasiko dute», zion bertako sorosleak, irakaslea uretan zegoen bitartean. 45 minutu igarotzen dituzte ariketak egiten, bakoitzak

zanka-latrakako babesa edo bizkarreko kortxoak soinean dituztela. Tikien hauekin gurasoak, amak, ere adi egoten dira putzu bazterrean, seme-alabei begira «ura hotz samarra dago-eta» zioten, baina kokotza dardarka bazuten ere, uretara gustura asko egiten zuten jauzi umeek.

Beste taldean, iada igeri jakin edo beste ikastaroren baten izanak izaki, teknikaren hobekuntza dute helburu. «Eskuak eta hankak kasik mugitu gabe ibiltzen dira uretan orain», argitu dute, horrela ikastaroan zehar arnasketa metodoak, hanka eta besoak ongi luzatu eta mugitzen, igeriketa moduak... ikasiko dituzte. Sail honetara lau-bederatzi urte bitarteko ikasleak, hamahiru zehazki, joaten dira, kozkorxeagoak. «Maila oso desberdina dute guztiek ere, baina mugimendu orokor batzuekin, dutena hobetzen saiatuko gara», adierazi zuten han bertan.

Aresotik Tolosara

Aresoko umeek ere aste honetan ekin diote igeriketa ikastaroari, baina hauek Tolosara joaten dira, Igarondo igerilekura.

Aresoko eskolako Guraso Elkar-teak aditzera eman duenez, hitzarmena egina omen du igerileku harekin eta urtero, uda iristen denean, igeriketa ikastarora joan ohi dira bertako umeak.

Txanda honetan, Aresoko eskolan ikasturtean zehar lehendabiziko eta bigarren mailako ikasle izan direnak hasi dira horretan, zortzi haur alegia. Bakoitzak duen mailaren arabera ikasiko du.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaledea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
 ▶ Ambulatorioa, larriald: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
 Ambulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Taxia: 67 04 20
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
 ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Olarreaga A., Korreo, 2, (Tolosa). Tlf.: 943 67 01 28.
 Gimeno, Elbarren, 52, (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitate. 661 67 88 18.
 tolosaldean_publi@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetaledea. 687 41 00 22
 anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarralde. 687 41 00 32.
 ibarralde@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
 leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

LEITZA ▶ PILOTA

Eskuz binakako plazako txapelketan Aldaia eta Olano finalean dira

Orain txapelduna izendatzeko partidurako, beste bikote finalistaren zain daude

J. ASTIBIA

Plazako eskuz binakako pilota txapelketako finaleko txartel-tako bat, Igor Aldaia eta Unai Olanok eskuratu zuten, lehen-go larunbatean, herriko plazan jokaturako finalaurreko partiduetako batean.

Bikote hau igaro da finalera, baina ez, ordea, lehiatu gabe:

Joseba eta Iñaki Mariñelarena anaien aurka jostatzea egokitu zitzaizen eta borroka bizia izan zuten partidu osoan zehar, ordu bete eta bi minutuko iraupeneko nor-gehiagokan, eta, azkenik, gutxieneko aldearekin, 22 eta 21eko markagailuarekin, beraz, azken partidurako txartela Aldaia eta Olanoren aldera irauli zen. Orain aurkariak



Partidu gogorra jokatu zuten lau pilotariak, larunbatean. J. ASTIBIA

zein izanen, zain daude. Izan ere, finalaurreko beste partidua aste honetan zehar jokatu-ko baita eta finala ere aste bu-

kaera honetan bertan burutu eta erabaki nahi lukete, antolatzailerik HITZARI esan diotenaren arabera.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Renault 19, 16 V. Egoera onean. Tlf.: 618 25 49 60.

LAN ESKAINTZA

Taberna. Tolosaldeko taberna batean lan egiteko neska bat behar dugu. P.K. 171, Villabona. **Alegian.** Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko Alegian. Ordutegia 10:30etik 14:30era. Tlf.: 943 65 30 34 (deitu arratsaldetan).

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Zizurkil. Munduko arraultzik handiena haur emanaldia. Bihar, 17:30ean, Joxe Arregi plazan. Gorringo taldearen eskutik.

DANTZA

Tolosa. Esloveniako dantza folklorikoak. Bihar, 22:30ean, Euskal Herria plazan. Gau Girotaren baitan.

DEIALDIAK

Gaztelu. Behibis antzerki taldearen Txakur beltz, handi eta... iletsu bat antzezlan haurrentzat. 11:00etan, udaletxean, Patricia Francoren eskutik.

Ibarra. Sendi Ekintzairen San Bartolometako zozketa: txartelak salgai dira Atarin, Zubiaurren, Danon Txokoa, Gurasoen elkartearen tabernan, Arkaitz Azpin eta Txumibetan.

Lizartza. Axurdario herri plataformak herri batzarrera deitu du gaurko, 21:00etan, udaletxeko udalbatzar aretoan. Udaletxearen egoera eta aurrera begirako asmoak izango da gaia.

Tolosa. Peñascal Fundazioak datorren ikasturterako Lanbide Hastapeneko ikastaroen matrikula epea ireki du. 16-25 urte bitarteko graduaturik gabeko gazteentzat; mailako prestakuntza teknikoak;



Zumardi Handian aparkalekua egokituta

TOLOSA ▶ Orain arte ere bazegoen aparkatzerik Zumardi Handian. Baina hemendik aurrera txukunago utzi ahal izango dira autoak eta motoak bertan. Izan ere, aparkatzeko gunea egokitu berri dute: aparkalekuen marraz margotu dituzte, lekuak mugatu, motoentzako gunek ere prestatu dituzte, bideak eta norabideak zehaztu... TAOrik gabeko gunea da Zumardi Handikoa. JOXEMI SAIZAR

graduatuak lortzeko eskolak: lan mundurako irtenbidea.
Informazioa eta izen-emateak

943 67 61 61 telefono zenbakian.
Tolosa. Alpino Uzturreren

irteera Pirinioetara asteburu honetan, Canfranc-Panticosa ingurura (Huescako Pirinioak).

Anayet eta Arriel mendiak igoko dituzte. Izen-ematea elkartearen egoitzan: Gudari 5, behe; 943 65 27 89.

ERAKUSKETA

Altzo. Altzoko Erraldoia, Altzo ezaguna egin duen gizona erakusketa, liburutegian. Haur eta helduentzat. Bisita gidatuak. Sarrera doan. Informazio gehiagorako telefona: 943 65 24 13.

KIROLA

Tolosa. Tolosa CFren XXXVI. Paleta Txapelketa. Gaur, hiru multzoetako bigarren sailkatuen arteko lehia, finalerdietarako noiz sailkatzeko: Renobales-Imaz, Lontxo-Nazabal eta Yugueros-Aldazabal bikoteen arteko ligaxka. 19:00etan hasita, Berazubiko frontoian.

MUSIKA

Tolosa. Guarayra musika taldearen emanaldia. Etzi, 23:00etan, Fronton kafetegian. Gau Girotaren baitan.

ZINE-KLUBA

Ibarra. Zinema aire librean: *Los lunes al sol*. Bihar, 22:00etan, udaletxe ondoko frontoian. Abuztuaren 12a arte, astearte eta ostegunero, Gaztetxeak antolatuta: www.ibarrakogaztetxea.net.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Eñaut Galarraga Cenzano (Amasa-Villabona). Gaur 3 urte. Zorionak etxeko guztien partetik.



URTE ASKOAN

Lupita. Zorionak etxeko guztien partetik.

URTE ASKOAN

Zorionak, amabxo.

Noa (ostiralean jaio zen).



Maria Teresa Imaz (Hernialde).

Nahiz urtea izan joan zinela, konturatuak gara gurekin zaudela.

Gaur, 19:00etan, Tolosako San Frantzisko elizan, izango da haren aldeko meza.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara (Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!